


Aurkezpena



MUNDUKO
HIRITARROK



ALBOAN

1. Lehen hezkuntzan proposatutako hezkuntz materiala

Karpeta pedagogiko honek hainbat proposamen didaktiko ditu, eta, horien bidez, curriculumeko materia bakoitzetik abiatuta, gizartearen parte hartzearen gaia landu daiteke. Prozedurazko proposamen berrietatik abiatuz jarrerak eta balioak lantzeko apustua egiten duen materiala da. Garrantzitsuenak ez dira, beraz, kontzeptuei dagozkien edukiak; aitzitik, elkartasuneko jarrera arduratsuak lortzeko eta ikaskuntza garrantzitsuak lortzeko aukera ematen duten prozedura berritzaileak dira oinarrikoak.

Proposamen hau herritartasunaren kontzeptua lantzen duen hezkuntza-proiektu zabalago baten zati da. Proiektuan hiru gai lantzen dira hiru ikasturtetan: eskubideak eta erantzukizunak; parte-hartze soziala; eta gatazkak maneiatu eta konpontzeko modu baketsuak. Ondoren, proiektuaren bigarren urte honetan sortutako hezkuntz materialaren zati bat dago; material horrek, hain zuzen, gizartearen partaidetzaren gaia lau premisa hauetatik lantzeko aukera ematen du:

- Antolatutako pertsona askoren ahaleginari eta parte-hartzeari esker lortu dira gauza gehienak gizartearen.
- Eremu zabalagoetan parte hartzeko, gertuen dauden eremuetan parte hartzen hasi behar da (familia, ikasgela, auzoa).
- Mundua aldatzen laguntzeko aukera ugari dago.
- Parte-hartzeak bizi garen munduko protagonistak izateko eta pertsona ororentzako mundu duin eta justuagoa eraikitzeko aukera ematen du.

Herritar gisa bizi garen gizartearen sartu eta parte hartzeko erantzukizuna –gure gain hartu behar duguna– lantzeko jarduera-proposamenak egiten dira hainbat curriculum-diziplinen ikuspegitik. Horrela, **matemati-ken** arloan, ekintzek beraiek duten garrantzia eta irismena aztertzen da; **ingurunearen ezagutzan**, ingurunea zaintzeko eta baliabide naturalak aurrezteko erantzukizun pertsonala eta kolektiboa aztertzen dira; **gorputz-hezkuntzan**, arauak errespetatzeko beharra eta guztientzako helburuak lortzeko antolatutako beharra aztertzen dira; **ingelesean**, egoera jakin batzuk salatzen eta eskatzeko betebeharra eta ekintza eta jarrera pertsonalek beste pertsonengan duten eragina aztertzen dira; **hezkuntza artistikoan**, guztientzako helburuak lortzeko antolatuta parte hartzeak duen garrantzia aztertzen da; **hizkuntzan**, taldeko erabakiak hartzean bakoitzaren erantzukizuna zein den aztertzen da; **etika eta erlijioan** ikastetxean dauden posterretan oinarrituz lan egiten da eta gizartearen parte hartzeko lehendik dauden bideen inguruan hausnarketa hasten da.



Hauek dira materialaren inplementazioarekin lortu nahi diren **helburu orokorrak**:

- Taldeko ekintzen plangintzan eta egitean laguntzea, arauak onartzea eta norberaren helburuak taldeko beste kideekin batera erabakitzea. Horretarako, ikuspuntu desberdinak errespetatu behar dira eta bakoitzak dagozkion erantzukizunak hartu behar ditu.
- Bizitza eta gizakien arteko bizikidetasuna zuzentzen dituzten oinarrizko balioen garrantziaz jabetzea eta haiek errespetatuz jokatzeko ohiko moduan.
- Norberaren ekintzek guztientzako xede eta helburu sozialak lortzerakoan duten garrantzia, irismena eta eragina ezagutzea.
- Munduko biztanle eta protagonista gisa dagozkion erantzukizuna ulertzea eta gure gain hartzea.
- Guztientzako helburuak lortzeko beste pertsona batzuekin planifikatzeak, elkartzeak eta antolatzeak duen balioa eta garrantzia ikustea.

2. Zikloko irakasle eta gurasoentzat lan-proposamena

Zikloan gai hau lantzen hasteko irakasleek eta gurasoek gaiari buruz hausnartzeko denbora eta materiala edukitzea komeni dela uste dugu, baita helburu nagusiak zehazteko eta ikastetxearen errealitatera egokitze-ko ere.

Horretarako, orientazio gisa erabiltzeko bi dokumentu aurkeztuko dira. Lehen dokumentua “*Munduko hiritarrak. Somos protagonistas de nuestro mundo*” da. Bertan hiru urte iraungo duen proiektuaren filosofia aurkezten da. Lortu nahi dugun hiritarraren kontzeptua definitzen da eta hezkuntza-estrategia batzuk zehazten dira.

Bigarren dokumentua “*Hiritartasun unibertsala lortzeko parte hartzea*” da. Hor, karpeta honetan aurkezten diren hezkuntza-materialen proposamenean oinarritutako filosofia aurkezten da. Material horiek badituzte osagarri batzuk ere: posterrak, bideoak, lehiaketak, mahai-jokoak eta ALBOANen aholkularitza- eta trebakuntza-zerbitzua.

Dokumentu horiek irakasleak eta gurasoak trebatzeko oinarri gisa erabil daitezke. Trebakuntza-saio horietan ikuspuntuak partekatu, testuinguru zehatzen arabera lan egiteko lehentasunak ezarri eta proposamenak osa daitezke.



Orain, hiru trebakuntza-saio proposatuko ditugu klaustroan, taldeka edo gurasoekin eztabaidatzeko.

1. saioa:

Aurrez "*Munduko hiritarrok. Somos protagonistas de nuestro mundo*" dokumentua emango zaie.

1. Taldekako dinamika: hiritartasuna hitzaren inguruan scrabble jokia.
 - a. Agertzen diren hitzen inguruan eztabaidatzea.
 - b. Horien lehentasuna.
2. Hiritartasunari buruzko dokumentuaren inguruan galdera hauek planteatzea.
 - Dokumentuaren inguruko azalpenak edo iruzkinak.
 - Zer iradokitzen dizu hiritartasuna hitzak?
 - Gaiaren diagnostikoa:
 - Ikasgela, ikastetxea, irakasleak, gizartea.
 - Zer zerikusi dauka horrek zure heziketa-lanarekin?
 - Arazo hau barne hartzen duten zein proposamen eta ekimen ezagutzen dituzu?
 - Bi alderdi hauei dagokienez, zein proposamen iruditzen zaizkizu beharrezkoak edo iradokitzaileak?
 - Gaiak
 - Metodologia
3. Taldeka lan egin eta gero bateratu.

2. saioa:

1. Taldeka eta aurreko saioan esan dena kontuan hartuz, 'hiritartasuna ikastetxean eta ikasgelan' gaiaren inguruan diagnostikoa egingo da.
2. Bateratze-lana eta adostea.
3. Gai hau lehiaketan aurkeztea: hiritarren parte-hartzea.

“**Hiritartasun unibertsala lortzeko parte hartzea**” dokumentutik eta galdera eta iradokizunetatik abiatuko da.

Dokumentua lantzeko galderak

Gure klaseei dagokienez...

- Zein beste elementu sartuko zenituzke egoeraren diagnostikoan? Zein beste ezaugarri ikusten dituzu zure inguruan? Zein elementu positibo estimatzen dituzu gure munduan? Zein neurritaraino uste duzu diagnostiko honek balio duela zure ikasleen artean?
- Noiz ohartzen zara ikasleek erantzukizun-zentzu handiagoa dutela? Zein egoeratan? Nola susta dezakezu erantzukizuna ikasleen artean? Ikasleak gelan edo ikastetxean parte hartzeko zein beste bide sor daitezke?
- Zein argumentu erabiltzen dituzu ikasleek errespetua, guztien ongizatea eta elkar zaintzarekin zerikusia duten gaitan erantzukizuna izan dezaten? Zein iritzi duzu diagnostiko honekiko? Familian, ikastetxean, herrian, munduan... nola sentitzen zara zure eskubideak erreklamatzean eta defendatzean edo zure erantzukizuna arriskuan ipintzean eta egoera horiek aldatzeko parte hartzean?

Gure buruari dagokionez...

→ *Nire parte-hartzea*

Guk baino hobeto inork ez daki zenbatekoa den gure gaitasuna eta parte hartzeko aukera, sarritan eska daitekeena baino harantzago dagoena: Zein dira nire ustez nire erantzukizunak hezkuntza-lanean parte hartzeari dagokionez? Zein daude nire “laneko” erantzukizunak baino harantzago?

Hezkuntza-komunitate baten partaide gisa: partaidetzarako zein bide eta mekanismo sustatu behar direla uste duzu? Nork du erantzukizun hori?

→ *Besteen parte-hartzeari dagokionez*

Pertsona guztiek parte hartzeko beharraren inguruan gero eta kontzientzia handiagoa dago, eta horrek besteen parte-hartzean eta eraginean garrantzi berezia hartzen du (bereziki behartsuenen parte-hartzean). Hezkuntza-arloan ikasleen, gurasoen, irakasle ez direnen, langileen, patronalaren eta abarren parte hartzeaz ari gara. Zein dira parte hartzeko bideak? (kontuan hartu aipatu ditugun talde desberdinak). Benetan zein aukera dituzte eragiteko erabakiak hartzerakoan? Nola susta dezakegu gutxiago parte hartzen duten taldeen partaidetza?

3. saioa:

1. Taldeka, galderak eztabaidatu eta ikastetxean edo hezkuntza-zikloan parte hartzeari buruzko diagnostikoa egin.
2. Bateratze-lana.
3. Helburu nagusiak zehaztu eta erabili beharreko materiala aurkeztu.

Ikastetxea girotzeko posterrak erabiliz gizartearen parte-hartzea modu sekuentzialean, mailakatuan eta koherentean lantzeko, ALBOANek posterrak honako ordena logikoan jartzea proposatzen du:

- Parte-hartzeak bere fruituak ematen ditu
- Gure esku dago gustuko ez duguna eraldatzea.
- Zu gabe ez dago puzzlerik
- Bizi parte hartuz
- Igo eta jaitsi parte hartuz
- Kostatu egiten da, baina merezi du
- Parte hartu bai, baina zein estilorekin?
- Pentsatu pluralean eta eskatu singularrean
- Aztertu parte-hartzearen bideak.
- Guk parte hartzen dugu. Nola? Non? Zertarako? Norekin?

3. Informazio gehiago lortzeko

Ondoren, web orrien zerrenda ematen dizugu. Horieta partaidetzaren inguruko beste baliabide interesgarri batzuk ematen dira eta informazio gehiago lortu ahal izango duzu.

Documentazioa

<http://www.mec.es/cide/rieme/documentos/pmurillo/pmurillo2.pdf> IKASTETXEETAN PARTE-HARTZEARI BURUZKO AZTERKETA. SEVILLAKO UNIBERTSITATEA.

<http://www.mec.es/cide/rieme/documentos/pmurillo/pmurillo2.pdf> IKASTETXEETAN PARTE-HARTZEARI BURUZKO AZTERKETA: LANBIDE ARTEKO LANKIDETZAREN ESPERIENTZIA.

<http://www.campus-oei.org/oeivirt/rie15a03.htm> INSTITUTU ETA BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASLEEN PARTE-HARTZEA: HAIEN ERREALITERA HURBILTZEA



<http://www.clacso.org/wwwclacso/espanol/html/libros/juventud/juventud.html> GAZTEEN PARTE-HARTZE SOZIALA ETA POLITIKOA MENDE BERRIAN, LATINOAMERIKAKO IKUSPEGIA

<http://rehue.csociales.uchile.cl/publicaciones/enfoques/02/edu02.htm> ESKOLAREN (PUBLIKOA) EZINBESTEKO PARTE-HARTZEA, TXILEKO IKUSPEGIA.

<http://www.fao.org/Participation/espanol/ourvision.html> PARTE-HARTZEAREN ETA GARAPENAREN ARTEKO EZINBESTEKO LOTURA.

Araudiak

<http://www.mec.es/cesces/2.3.d.htm>. ESTATUKO ESKOLA-KONTSEILUEI BURUZKO INFORMAZIOA.

<http://www.mec.es/cesces/2.4.e.htm>. HEZKUNTZAREN PARTE-HARTZEA EUROPAKO BATASUNEAN

Hezkuntzako esperientziak

<http://www.uv.mx/iiesca/revista/suma34.html> INGURUMENEO HEZKUNTZA-ESPERIENTZIA, PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

<http://www.ericfacility.net/ericdigests/ed432408.html> GURASOEK ESKOLAN DUTEN PARTAIDETZA AZTERTZEN DUEN ARTIKULUA.

<http://www.participacion-ciudadana.or.cr/> COSTA RICA KO HIRITARREK PARTE HARTZEKO PROIEKTUA.

<http://www.campus-oei.org/salactsi/osorio2.htm> URAREN ARAZOAN HIRITARREK IZANDAKO ESPERIENTZIA.

<http://www.cma.junta-andalucia.es/menu04.html> INGURUMEN-HEZIKETAN PARTE-HARTZEARI BURUZKO ESPERIENTZIAK ETA DOKUMENTAZIOA ANDALUZIako JUNTAN.

<http://www.vivalaciudadania.org/todo.htm> PARTE-HARTZEA ETA HIRITARTASUNARI BURUZKO TAILERRAK ETA DINAMIKAK KOLONBIAN.

Parte hartzeko proposamenak

<http://www.pangea.org/ai-cat/educadors/2/textos-actua.html> AMNESTY INTERNATIONAL-EN PROPOSAMENA.

http://espanol.ashoka.org/Public/IG_ParticipacionCiudadana.asp ASHOKA-REN (SUSTATZAILE SOZIALAK) PROPOSAMENA.

<http://www.cje.org/actividades.nsf/sub!readform&cat=participacion&subcat=asociacionismo>. ESPAINIAKO GAZTERIA KONTSEILUARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA HAREN PROPOSAMENAK.

<http://www.enredate.org/esp/htm/index.htm>. UNICEF EN PROPOSAMENA IHESARI BURUZKO KANPAINARAKO.

<http://www.icftu.org/petition.asp?Name=childlabour&Language=ES> CIOSLREN PROPOSAMENA HAURREN LANAREN KONTRAKO KANPAINAN PARTE HARTZEKO.

<http://www.participar.net/> Sareko PARTAIDETZAREN ESPERIENTZIA.

<http://www.unicef.org/voy/es/meeting/lab/labhome.html> HAURREN LANAREN INGURUKO PROPOSAMENA.


http://www.intermonoxfam.org/html/cam_zon.html INTERMON-EN PROPOSAMENA.



Matematika



MUNDUKO
HIRITARROK



ALBOAN

Helburuak

- Ondorioztatzeko gaitasuna eta pentsamendu logikoa eta matematikoa lantzea.
- Gure ekintzek izan dezaketen garrantzia eta eragina ulertzea.
- Taldean antolatuta parte hartzeak duen garrantziaz jabetzea.
- Arazoak eta egoerak konpontzeko, guztien artean parte hartzera bultzatzea.

Jarduerak

1 ariketa: “Hedapen azkarra”¹ – 3. zikloa

Deskribapena: Ikasleek 1.1 fitxako testua irakurriko dute bakarka, eta zuriuneak zifrekin beteko dituzte. Gero, talde txikitan elkartuko dira emaitzak konparatzeko eta ondoren egiten diren galderen gainean hausnartzeko.

Materiala: 1.1 fitxa. **Dinamika:** Banakakoa eta taldekakoa.

Denbora: 60 minutuko saioa.

2 ariketa: “Kokatzen” – Ziklo guztiak.

Deskribapena: Bosteko taldeak osatuko dira. Irakasleak taldeko kide bakoitzari esaldi bat idatzita duen paper bat emango dio. Egoera bat asmatzeko argibidea izango da. Kide bakoitzak bere argibidea erakutsiko die taldeko beste kideei eta zein egoera den asmatzen parte hartuko dute. Azkenik, kartoi mehe batean marraztuko dute egoera hori eta beste taldeen irudiarekin konparatuko dute.

Materiala: 2.1 fitxa, kartoi meheak, arkatzak.

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora: 30 minutuko saioa.

Iradokizunak: Arazoa konpontzeko, garrantzitsua da kide guztiei parte hartzeko eskatzea eta bultzatzea. Pertsona gehiagok parte hartuz gero arazoa azkarrago konpontzen dela jakinaraziko zaie. Kide bakoitzaren parte-hartzea eta ekarpena garrantzitsua eta beharrezkoa da planteatutako egoera zein den asmatzeko.

¹ Egokitua: Bakearen Aldeko Koordinakundea. Bakerako Heztekoko Batzordea.

1.1. Fitxa

Zenbat landare lor ditzakegu mitxoleta-hazi batetik?

Irakurri kontakizun hau eta bete zuriuneak.

Hedapen azkarra

Mitxoleta-kapsula bat ale txiki-txikiz beterik dago; ale bakoitzetik landare berri bat haz daiteke. Zenbat mitxoleta lortuko lirateke kapsulako hazi guztiak emankorrek balira?

Hori jakiteko, kapsulan zenbat hazi dauden kontatu behar da. Lan hori aspergarri samarra da, baina interesgarria denez, merezi du pazientzia pixka batekin kontatzea. Mitxoleta-kapsula batek 3.000 hazi inguru ditu.

Zer ondorioztatzen duzu hortik? Gure mitxoletaren inguruan lurrazal egokia baldin badago, hazi guztiak ernamuinduko dira eta datorren udan 3.000 mitxoleta haziko dira han. Mitxoleta-sail bat kapsula bakarretik!

Baina ikus dezagun gero zer gertatzen den. 3.000 landare horietako bakoitzak kapsula bat gutxienez (ohikoena bat baino gehiago ematea da) emango du eta 3.000 hazi inguru edukiko ditu. Ernamuindutakoan, kapsulako hazi bakoitzak 3.000 landare berri emango ditu. Ondorioz, bigarren urtea landaretik gora izango ditugu.

Erraza da kalkulatzea hasieran genuen mitxoletaren ondorengo landare-kopurua hirugarren urterako..... ingurukoa izango dela. Eta laugarren urtean : Bosgarren urtean mundua txikiegia geratuko zaie, ordurako egongo baitira.

Munduko luraren azalera, guztira —hau da, Lurreko kontinente eta irla guztiena—, 135 milioi kilometro karratu da, metro karratu, haziko liratekeen mitxoleta-kopurua baino aldiz handiagoa.

Ikusten den bezala, mitxoleta-hazi guztiak ernamuinduko balira, bost urtean landare bakar baten ondorengoek munduko lurren gainazal osoa beteko lukete, sasi itxi-itxiz josi. Metro karratuko 2.000 landare egongo lirateke. Begira mitxoleta-hazi bakarretik zenbat landare haz daitezkeen!

Kalkula dezagun!!!

- Zer esan nahi digu testuak?
- Gutako bakoitzak ekintza positibo bat egiten badugu eta ordubeteen beste geletako ikaskideak parte hartze-ra bultzatzen baditugu, zenbat denbora beharko genuke ikastetxeko ikasle guztiak lanera bultzatzeko?
- Zenbat denbora beharko litzateke zure herriko biztanle guztiak konbentzitzeko?
- Pertsona bakoitzak bi ikaskide konbentzitu beharrean hiru konbentzitzen baditu, zenbat denbora aurretuko genuke?



2.1. Fitxa

Taldean marrazki bat egiteko eskatuko dizuegu. Oso erraza da! Imajina ezazue honako hau: bost pertsona zineko leihatilako ilaran daude. Baina.... zer itxura dute? nola daude jarrita ilaran? Asmatzeko argibideak emango dizkizuegu

Taldeko pertsona bakoitzari argibide hauetako bat emango diogu:


- *Ibon Ainararen aurrean dago eta karpeta bat dauka.*
- *Ainara 12 urteko neskatila bat da eta betaurrekoak ditu.*
- *Ainara mutil baten aurrean dago.*
- *Aitor ilarako azkena da.*
- *Ilaran bi mutil eta hiru neska daude.*

Bateratu guztien argibideak eta pentsa ezazue pertsona horiek zer itxura duten eta nola kokatuta dauden. Amaitutakoan, marraztu!!

Orain, ikus ditzagun marrazkiak eta hitz egin dezagun guztien artean:

- Nolakoa izan da ikerketa?
- Zer da errazagoa, irtenbidea bakarka edo taldeka bilatzea?
- Nola antolatu zarete taldean zuen argibideak eta ondorioak emateko?
- Taldeko norbaitek ez parte hartzea edo ez laguntzea erabakiko balu, zer gertatuko litzateke?

Ingurunea ezagutzea



ALBOAN

Helburuak

- Ingurunea zaintzeaz arduratzea eta parte-hartze indibidualak duen garrantzia eta eragina ulertzea.
- Zehaztutako helburua lortzeko antolatzea eta jarduera-estrategiak prestatzea.
- Beste pertsona batzuk ere konprometiaraztea eta ingurunea zaintzeko haien parte-hartzea eta lankidetzaren eskatzea.
- Eguneroko bizitzako adibideetan oinarriturik, pertsonok ura nagusiki zertarako erabiltzen dugun esatea, eta horren erabileraren abantailak eta eragozpenak zehaztea.
- Ura eta beste baliabide natural batzuen kontsumoan jarrera arduratsua izateak duen garrantzia ulertzea.
- Taldekako lanean parte hartzea eta laguntzea eta taldeko kide gisa egin beharreko zereginak, eskubideak eta betebeharrak erantzukizunez hartzea.

Jarduerak

1 ariketa: “Plan ona”¹ – 2. eta 3. zikloak

Deskribapena: Ikasleei birziklatze-plan batean parte hartzeko proposatuko zaie. Horretarako, aurrena antolatu egin beharko dute eta zer eta nola birziklatu behar duten erabaki. Gainera, koordinatzaile bat izendatuko dute. Plana ikasgelan martxan jarritakoan, birziklatze-plan honetan ikastetxe osoak parte hartzeko sustatzaile gisa aritzeko eskatuko zaie. Helburua argi dago: zenbat eta pertsona gehiagok parte hartu, orduan eta emaitza hobeak lortuko dira.

Materiala: 1.1 fitxa.

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora: 60 minutuko saioa birziklatze-plana antolatzeko. Plana gauzatzeko egin behar diren jardueretarako (beste ikasgela batzuk konprometiaraztea, kartelak egitea, planaren jarraipena egitea...) denbora gehiago beharko da.

2 ariketa: “Tantaz tanta” – 1. eta 2. zikloak

Deskribapena: Bi marrazki erakusten dira (2.1 fitxa). Ikasleek uraren kontsumoari dagokionez jarrera zuzena erakusten duen irudia koloreztatu behar dute. Ondoren, galdera batzuk egingo dira eta taldeka erantzungo dituzte. Gero, hainbat ideia bilduko dira gure eguneroko bizitzan ura neurritz kontsumitzeko zer egin dezakegun jakiteko. Garrantzitsua da irakasleak ikasleak haien ideiekin parte hartzera bultzatzea.

Materiala: 2.1. fitxa.

Dinamika: Banakakoa eta taldekakoa.

Denbora: 60 minutuko saioa.

¹ Egokitua: The Earth Works Group, 1995. 50 cosas que los niños pueden hacer para reciclar. Emercé: Bartzelona.



1.1. Fitxa

Plan on bat proposatuko dizuegu. Imajinatzen duzue leku garbi bat, edukiontziak paperez, lataz, beiraz eta abarrez beteta, birziklatzeko prest?

Plan hau onartzen baduzue, horrela egon daiteke zuen ikasgela...

Proiektu handia da, baina merezi du egitea, emaitzak onak izan baitaitezke.

Nondik hasi?

- Hasteko modurik onena beste pertsona batzuek ere parte har dezaten lortzea da. Ikasgela osoa talde batean bildu eta birziklatze-plana guztien proiektu bihurtuko dugu.
- Gai honi buruz hitz egiteko bilera bat egitea eta zer birziklatuko dugun erabakitzea komeni da.

Alderdi hauek aztertu behar dituzue:


- ikasgelan zein material botatzen dugun gehien.
- zer birzikla daitekeen etxean eta herrian.

Ikasgelan birziklatzeko ideia batzuk

Paper zuria: koadernoko orriak, inprimagailuko orriak, fotokopiak, azterketa eta abarretako papera
Era askotako paperak: kartoi mehea, koloretako papera, paperezko poltsak...
Ontziak: beira, aluminioa, plastikoa...

Birziklatzeko arduraduna izendatzea komeni da. Honako ardura hauek izango ditu:

- materialak adierazitako edukiontzira botatzen direla ziurtatzea.
- birziklatutako materialak ateratzea.
- edukiontziak beteta daudenean irakasleari jakinaraztea.



Non gorde birziklatutako objektuak?

Herri batzuetan, Udalak birziklatzeko edukiontziak eman diezazkieke ikasgelari. Informa zaitezte!!!

Eman garbitzaileei birziklatze-planaren berri, bestela zaborra dela pentsatuko dute.

Kaxa edo zabor-ontzi hutsak erabiliz ere egin ditzakezue edukiontziak.

Ikasgela guztiaren artean birziklatzea lortu baduzue, zergatik ez zarete saiatzen proiektu handiagoa egiten eta ikastetxe osoa birziklatzera bultzatzen?

Beste ikasgela batzuek ere gauza bera egiteko konpromisoa har dezaten saiatu behar duzue. Zenbat eta pertsona gehiagok egin, emaitza hobekia lortuko dira. **Antola zaitezte** ikastetxeko pertsona guztiak parte har dezaten.

- Bilatu edukiontziak beste ikasgeletarako eta ikastetxeko hainbat lekutarako: idazkaritza, jangela, biltegia. Pentsa ezazue zein edukiontzi-mota den egokia leku bakoitzerako (papera, botila eta latak, kartoia...).
- Idatzi dokumentu bat eskolan birziklatzea nola egingo den azaltzeko. Guztiei kopia bana eman (irakasleak, gurasoak eta beste pertsona batzuk)
- Birziklatzeko edukiontzien ondoan argibideak ipini, zer egin behar den jakiteko, batik bat hasieran.
- Birziklatze-plana martxan jarritakoan, pentsa ezazue besteei nola jakinaraziko diezuen plana zer moduz doan. Adibidez, kartel ikusgarriak egin ditzakezue zenbat kilo paper, aluminio edo beira birziklatu den jakinarazteko.

Garrantzitsua da parte hartzea eta beste pertsona batzuk parte hartzeko motibatzea eta bultzatzea!

2.1. Fitxa

Margotu ezazu zure ustez jokabide zuzena erakusten duen marrazkia



Zertxobait pentsatzeko...

- Zergatik margotu duzu marrazki hori eta ez bestea?
- Ura aurreztea garrantzitsua dela uste duzue? Zergatik?
- Zerbait egin dezakegu gure eguneroko bizitzan?
- Adibidez, ur beroa irteteko zain gaudenean, hasieran hotza ateratzen da, eta ontzi bat ipin dezakegu azpian ur hori jasotzeko beroa irten arte. Zertarako erabil dezakegu ur hori?
- Beste zer egin dezakegu?

Denak dira ideia onak, jakinaraz ditzagun!
Gomendio horiek etxean, ikastetxean, auzoan
eta beste hairbat lekutan eman ditzakegu.
Horrela, jende gehiagok jakingo du ura aurrezteak
garrantzitsua dela, eta nola egin jakiteko
argibideak emango dizkiegu.

Gelako kortxoan gure gomendioak zintzilikatuko ditugu:


- Xaboia erabiltzean itxi txorrota, eta aurreztuko duzu ura litroka.
- Ura edandakoan sobratzen bazaizu, bota krabelinei, aizu!
- Bainatu ordeztu, eta urte osorako ura aurreztu.

Pentsa dezagun
besteren bat!

Gorputz-hezkuntza



MUNDUKO
HIRITARROK



ALBOAN

Helburuak

- Gorputzaren mugimenduak eta jarrerak sinkronizatzea beste pertsona batzuenetara egokitzeko.
- Antzezpen eta jokoetako parte-hartzea antolatzea eta horren garrantzia azpimarratzea.
- Munduko beste leku batzuetako jokoak ezagutzea.
- Eskuarekin pilota bat jaurtitzea keinu koordinatua osatuz.
- Jokoetan zehaztutako arauak errespetatzea eta, jokoak ondo antolatzeko eta gauzatzeko, haien beharra onartzea.
- Taldekako jokoetan parte hartzea eta laguntzea.

Jarduerak

1 ariketa:

“Zer dio gure gorputzak?” – Ziklo guztiak

Deskribapena: Ikasleei gorputza erabiliz guztien artean hitz bat osatzeko esango zaie. Horretarako, zein hitz irudikatuko den erabaki behar da aurrena. Hitzak aukeratutakoan, ikasleak taldetan banatuko dira. Hitzak zenbat letra, hainbeste talde. Talde bakoitzak letra bat irudikatuko du gorputza erabiliz, lurrean etzanda. Horretarako, letra irudikatzeko modurik onena zein den erabaki eta gorputzak moldatu behar dituzte. Letra nola osatu erabakitakoan, hitza osatzeko elkartuko dira. Taldeak euren artean ondo antolatzea komeni da hitza irakurri ahal izateko.

Materiala: 1.1 fitxa.

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora: 30 minutu.

Iradokizunak: Zein hitz irudikatuko duten aukeratu aurretik, ideia-sorta bat biltzea komeni da galdera honen inguruan: zer esan nahi du guretzat parte-hartzeak? Parte-hartzearekin lotutako hitzen zerrenda egin eta hortik bat aukeratu.

2 ariketa:

Makii¹ – Maila guztiak

Aurrekariak: Aurreko saio batean, ariketa honetarako bi litroko plastikozko botila huts bat ekartzeko eskatuko zaie ikasleei.

Deskribapena: Botilak bolo gisa erabiliko dira ikasleek hareaz bete eta apaintzen dituztenean. Boloak egingakoan hasiko da joko. Boloen bertsio kooperatiboa da eta Ginea Berriko Makii jokoan oinarriturik dago.

Lau talde osatuko dira (A, B, C, D) eta binaka arituko dira. Talde bakoitzak zeinen aurka jokatuko duen erabakiko da. Eman dezagun, adibidez, batetik A eta Bk eta, bestetik, C eta D taldeek jokatuko dutela.


Boloak korridore hutsik utzi gabe kokatuko dira. Talde bateko jokalaria, bata bestaren atzetik, boloei pilotekin jotzen saiatuko dira. Bolo bat jotzen denean, jolas-eremutik kenduko da eta jokalaria beste jaurtiketa bat egin ahal izango du. Jotzen ez badu, bere txanda amaitu egingo da. Boloa bigarren aldiz jotzen badu ere, bere txanda amaitu egingo da. Aurrena talde batek egingo du jaurtiketa, ondoren boloak berriro kokatuko dira eta beste taldeak botako du pilota. Helburua berdintzea da, amaieran bi taldeek puntuazio bera izan dezaten. Hori lortzeko, batzuetan pilota boloen artean birarazi behar da bolorik ukitu gabe.

Materiala: Plastikozko botila zaharrak, harea, itsasgarria, tapoiak, margoak, 2.1 fitxa.

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora: 60 minutuko saioa.

Iradokizunak: Ariketa hau hezkuntza artistikoan egin daiteke, boloak egitea plastikari dagokion prozedura baita. Aurreko saio batean Ginea Berriko errealitateari eta arteari buruz hitz egin daiteke.



¹ Egokitua: Seminario de Educación para la Paz, 1990: "Aprende a jugar, aprende a vivir" kanpaina. A.P.D.H.: Madril.

1.1. Fitxa

Ariketaren ondoren...

- Denek berdin parte hartu duzue hitza aukeratzeko?
- Erraza izan da tokatu zaizuen letra irudikatzea?
- Nola antolatu zarete taldean letra osatzen denek parte hartzeko?
- Eta talde handian, hitza osatzea erraza izan da?

Ariketan, pertsona bakoitzak letra baten zati bat irudikatzen du. Banakako irudikapenak ez du zentzu handirik, baina taldean elkartutakoan nahi zenutena lortu duzue: letra osatzea. Talde guztiak elkartutakoan urrunago iritsi zarete, eta hitza osatu duzue.

Garbi dago askotan gauza txikiak egiten ditugula, garrantzirik ez dutela uste dugun gauzak. Hala ere, taldean elkartzen bagara eta banaka egiten duguna elkartzen badugu, lortzen den emaitza handiagoa da. Talde horiek beste talde batzuekin elkartzen badira Zein izango da azken emaitza? Beste zein gauza egiteko elkar gaitezke?

2.1. Fitxa

Ibil gaitezen Makii jokoan, entzun duzue inoiz izen hori? Ginea Berriko joko bat da eta boloen oso antzekoa da.

Badakizue non dagoen Ginea Berria? Bila dezagun mapan.

Jolasten hasi aurretik

Boloak eta pilotak behar ditugu, noski. Sortuko ditugu guztion artean?

Bete ezazue botila hareaz goraino. Orain, itxi tapoi batekin itsasgarriaz igurtzi ondoren. Kanpoko aldea marrazkiekin eta koloreekin apain dezakezue. Pilotak ere apain ditzakezue Ginea Berrian egingo luketen bezala.

Orain, jolas gaitezen

Lau talde osatuko ditugu eta zotz egingo dugu talde bakoitzak zeinen aurka jokatuko duen erabakitzeko.

Jolasten hasteko, boloak kokatu behar dira. Pertsona bakoitzak berak egin duen boloa kokatuko du. Guztien artean triangelu bat osatu behar dute.

Talde bat hasiko da eta gero besteak jarraituko du. Lehen taldeak bolo bat edo gehiago botatzen baditu, bigarren aldiz jaurtiko du pilota, bestela, beste taldearen txanda izango da. Aldi bakoitzean, taldeko pertsona batek botako du. Jokalari guztien txanda amaitutakoan (denek pilota botatutakoan), bi taldeek berdinketa lortu behar dute. Hori lortzeko, askotan pilota boloen artean birarazi behar da bolorik ukitu gabe.


Jokoa amaitutakoan...

- Zer iruditzen zaizue jokoa? Ondo pasatu duzue?
- Zer izan da zailena?
- Zein estrategia erabili duzue taldean berdintzen saiatzeko?
- Taldeak ondo funtzionatzeko garrantzitsua dela uste duzue kide guztiek parte hartzea?
- Nola parte hartzen duzu etxean gauzak denentzat hobekia izan daitezene? Eta klasean? Eta munduan?
- Jokoa zuek sortu duzue desegindako materialekin. Zein abantaila dauka gauza berriak sortzeko birziklatutako materiala erabiltzeak?
- Ingurumena zain dezakegu sarriago egiten badugu. Zer gehiago sor dezakegu birziklatutako materiala erabiliz?

Ingelesa



MUNDUKO
HIRITARROK



ALBOAN

Helburuak

- Irudimena eta sormena garatzea.
- Egoera sozial kaltegarriak eta bidegabeak salatzea eta parte hartzeko bideak aztertzea errealitatea hobetzeko
- Gure ekintzek beste pertsonengan eragina dutela ulertzea.
- Deskribapen errazak ingelesez idaztea.
- Ingelesez hitz egiteko erraztasuna hartzea.

Jarduerak

1 ariketa:

“Enkartelada” – Ziklo guztiak

Deskribapena: Irakasleak irudi bat hautatuko du gelan lantzeko. Irudi horrek errealitate nahiko txarra erakutsiko du (ingurumena hondatzea, energia gehiegi gastatzea, haurren lana...). Ikasleek, taldeka, irudia deskribatu eta aztertu egingo dute, eta horma-irudi bat, poster bat edo kartel bat egingo dute. Horren bidez irudiko egoera salatuko dute eta hori hobetzeko ahaleginean nola parte har daitekeen proposatuko dute.

Materiala: Guraizeak, itsasgarria, koloretako papera, errotuladoreak, margoak...

Dinamika: taldekakoa.

Denbora: 60 minutuko saioa.

Iradokizunak: Talde bakoitzari irudi bat eman eta, amaieran, bateratze-lana egin talde bakoitzean egin duten lana azalduz.

Ariketa hau, bere izaeragatik, hezkuntza plastikoan ere egin daiteke.

2 ariketa:

Go! – Ziklo guztiak

Deskribapena: Ikasleei ilaran jartzeko eskatuko zaie eta bakoitzak aurreko ikaskideari sorbaldatik edo gerritik helduko dio. Irakasleak zer egin behar duten esango die. Mugimendu guztiak beste ikaskideengandik aldendu gabe egin beharko dituzte. Adibidez:

- *Walk.*
- *Run*
- *Stop*
- *Walk quickly*
- *Jump*
- *Sit down*
- *Stand up...*

Jokoa amaitutakoan, gertatu denari buruz hitz egingo dute honelako galderak eginez: Zaila izan da jokoa? Zer da errazagoa, ariketak bakarrik egitea edo taldeka egitea? Zer da dibertigarriagoa? Zuen mugimenduek, ekintzek besteenak mugatzen dituzte. Hori noiz gertatzen dela konturatu zarete? Gure ekintzak garrantzitsuak dira, beste pertsonengan eragina baitute eta errealitatea alda baitezakete. Hori kontuan hartu eta ekintzan guztiok parte hartzen badugu, emaitza handiagoak eta hobeak lortuko ditugu. Parte-hartzea garrantzitsua da!

Dinamika: Taldekakoa.


Denbora: 60 minutuko saioa.

Iradokizunak: Jarduera hau egiten den hezkuntz mailaren eta irakaslearen irizpidearen arabera, bukaerako elkarrizketa egokiena iruditzen den hizkuntzan egin daiteke.

Hezkuntza artistikoa



MUNDUKO
HIRITARROK



ALBOAN

Helburuak

- Produktu artistiko bat egiteko proposatzea, erabilgarri dauden materialak kontuan hartuta.
- Ekoizpen artistikoak egitean elkarrekin lan egitea.
- Zeregin bat gauzatzean partaidetza antolatzeak eta planifikatzeak duen garrantzia ulertzea.
- Irudi bat ulertzea, aztertzea eta kritikoki balioztatzea.
- Irudi baten esanahi adierazgarria aldatzea teknika artistiko errazak erabiliz.
- Errealitatea aldatzeko norberak duen gaitasuna balioztatzea indibidualki eta taldean parte hartuz.

Jarduerak

1 ariketa:

“Egin dezagun hegan irudimena erabiliz! – Ziklo guztiak

Deskribapena: Ikasleak 5 pertsonako taldeetan banatuko dira. Talde bakoitzak kometa bat egingo du. Kometa egiteko, ez da jarraibiderik emango, talde bakoitzak erabaki beharko du nolako kometa egingo duen.

Taldeko kide bakoitzari material bat emango zaio eta kide horrek bakarrik erabili ahal izango du. Horrela, pertsona guztiek hartuko dute parte prozesuan. Talde bakoitzak ondo antolatu beharko du eta kometa egiteko estrategiak erabaki beharko ditu, pertsona bakoitzak ordenatuta eta eraginkortasunez parte har dezan prozesuan bere materiala erabiliz.

Materiala: Taldeko kide bakoitzari material hauetako bat emango zaio: itsasgarria, guraizeak, kartoi mehea edo koloretako papera, artilea eta pita, makila luzeak eta finak.

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora: 60 minutuko bi saio.

2 ariketa:

“Alda dezagun irudia” – 3. zikloa

Deskribapena: Bost pertsonako taldeetan, beste herrialde batean lanean ari den neska baten argazkia behatuko dute. Talde bakoitzak irudia aztertuko du eta jasotako inpresioei buruz hitz egingo dute. Ondoren, talde bakoitzari argazkia manipulatzeko esango zaio, errealitatea alda dezan eta nahi duena irudika dezan.

Materiala: 2.1 fitxa, guraizeak, itsasgarria, errotuladoreak, margoak, kartoi meheak eta koloretako papera, etab.

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora: 60 minutuko saioa.

Iradokizunak: ‘Hirugarren Munduari’ eta garatze-bidean diren herrialdeei buruzko irudi, mito eta topiko estereotipatuekin kontuz ibili.

1.1. Fitxa

Egin dezagun kometa bat!

Hona hemen **materiala**:

- Itsasgarria
- Guraizeak
- Koloretako papera
- Makilak
- Artilea eta pita

Har ezazue material horietako bana.

ZUK BAKARRIK ERABIL DEZAKEZU HARTU DUZUN MATERIALA.

...KOMETA HEGALDATUAURRETIK, GURE IRUDIMENARI HEGAN
EGITEN UTZI BEHAR DIOGU...

Nolakoa izango da kometa?

Hasi aurretik ondo pentsatu nola egingo duzuen. Gogoan izan: material guztiak erabili behar dituzue, denek parte har dezazuen.

Gainera, kometaren buztanean edo gorputzean esaldi bat idatzi behar duzue. Esaldi horren bidez, parte-hartzeari buruz denek duzuen iritzia emango duzue.

Zer moduz moldatu zarete?

- Nolakoa izan da kometa egiteko prozesua?
- Nola antolatu zarete denek parte hartzeko?
- Emaizarekin gustura zaudete?
- Nahi izan duzuenean parte hartu duzue kometa egiteko prozesuan?
- Nola sentitu zarete parte hartu nahi baina ezin izan duzuenean?



2.1. Fitxa



Argazkia ikusitakoan...

- Zer agertzen da argazkian?
- Zer sentitu duzue irudia ikustean?
- Zein herrialde dela uste duzue?
- Neska horrek zenbat urte dituela uste duzue? Egiten ari dena bere adinean egitea normala dela uste duzue? Non egon beharko luke?
- Zergatik uste duzue ari dela lanean?
- Ezaguna egiten zaizue argazkian erakusten dena?
- Gure herrialdean, zer egiten dute zuen adineko neska-mutilek? Konpara ezazue neska horren bizitza zuenarekin.

Orain, gustatzen ez zaiguna aldatuko dugu.
Taldeka, irudia aldatuko dugu.
Hemen hairbat material dituzue.
Aldatu irudia nahi duzuenak ikus dezazuen. Hasi lanean!

Irudia aldatu dugu, baina badakigu leku askotan haurrek lan egin
behar izaten dutela bizitzeko
Badakizue haiek zein iritzi duten?

Haur eta nerabe langile batzuk antolaturik daude beraien eskubideak defendatzeko.
Orain dela urte batzuk, mundu mailako martxa bat antolatu zuten haurren esplotazioaren
aurka. Orain hezkuntzaren aldeko beste kanpaina batzuk antolatzen ari dira. Informazio
gehiago nahi baduzu, esan zure irakasleari kanpaina batean parte hartu nahi duzula.

Hona hemen helbide interesgarri batzuk:

<http://www.icftu.org/petition.asp?Name=childlabour&Language=ES>

<http://www.cidadanet.org.br/galeria/espanhol/marcha.htm>

<http://www.casa-alianza.org/ES/human-rights/labor-exploit/global-march/>


<http://www.unicef.org/voy/es/meeting/lab/labhome.html>

Has gaitezen lanean,
baina egin dezagun behar bezala!

Hizkuntza



MUNDUKO
HIRITARROK



ALBOAN

Helburuak

- Era konstruktiboan parte hartzea (entzutea, adostasunera iristea, iritziak ematea, besteak errespetatzea...) taldean erabakiak hartzerakoan.
- Hitz-trukaketa ahalbidetzen duten arauak errespetatzea.
- Erabakiak hartzean parte hartzeko interesa erakustea eta, horretarako, elkarrizketa erabiltzea.
- Ahozko mezuak egituratuta, koherentziaz eta testuingurura egokituta sortzea.
- Istorio bat guztien artean ahoz eta bat-batean sortzen parte hartzea jarioasunez eta koherentziaz.

Jarduerak

1 ariketa: Urakana dator! – 2. eta 3. zikloak

Deskribapena: Ariketa honen helburua taldekako dinamika parte-hartzailearen bidez elkarrizketa, erabakiak hartzea eta akordioak lortzea lantzea da. Horretarako, fikziozko egoera bat sortuko da eta talde bakoitzak hasi duen bidaiarako zein hiru elementu komun behar dituen erabaki behar du. Ariketa hasteko 1.1 fitxa banatuko zaie ikasleei. Fitxa horretan zer egin behar duten adieraziko zaie. Irakurritakoan, bost pertsonako taldeetan elkartuko dira eta ariketa egingo dute. Azkenik, hausnartzeko eta ondorioak zehazteko galdera batzuk proposatuko dira.

Materiala: 1.1. fitxa.

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora: 60 minutuko saioa.

Iradokizunak: Ariketa egiten den hezkuntza-mailaren arabera, irakasleak 1.1 fitxan sortutako egoera ondo azaltzea eta ariketa garatzeko argibideak ematea komeni da.



2 ariketa:

“Asma dezagun ipuin bat!” – 1. eta 2. zikloak

Deskribapena: Irakasleak zirkulu bat osatuz eseriko dira. Guztien artean istorio bat sortuko dutela azalduko du irakasleak. Ikasle guztien artean pixkanaka osatuko dute ipuina. Horretarako pilota bat erabiliko dute eta istorioa josiko duen haria eta jostorratza izango da. Irakaslea, pilota eskuan duela, istorioa kontatzen hasiko da: *“Ozeanoaren beste aldean, hainbat koloretako herrialde batean, Esmeralda bizi da, begi beltz handiak dituen neskato bat. Bere gurasoekin eta ahizpa zaharragoekin bizi da txabola txiki batean. Egun batean euri pila egin zuen eta...”* Orduan, irakasleak pilota beste norbaiti jaurtiko dio eta hark jarraituko du istorioa kontatzen. Dinamika hori erabiliko da ikasle guztiek ipuin-kontaktetan parte hartu arte.

Materiala: Pilota.

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora: 60 minutuko saioa.

Iradokizunak: Irakasleak edo ikasleak, txandaka, istorioa orri batean edo arbelean idatz dezakete.



1.1. Fitxa

1. Gaur, euri-jasak izango direla eta haize zakarra ibiliko dela iragarri dute egunkariak, beraz, prestatuta egon behar dugu. Donostiako biztanle guztiek beste herri batera joan beharko dute segurtasun arrazoiengatik. Bidaiarako beharrezko gauzak bakarrik hartuko ditugu, beraz, guretzat zer den garrantzitsuena erabaki behar dugu. Irudimenaren munduan dena baliozkoa denez, materialak ez diren 'gauzak' ere eraman ditzakegu, maitasuna eta adiskidetasuna esaterako.

Garrantzitsua iruditzen zaigun horretatik guztitik pertsona bakoitzak bost gauza aukeratuko ditu.

2. Baditugu gure ustez beharrezkoak diren bost elementuak. Baina, hara! hartu behar dugun itsasontziak pisu gehiegi dauka. Horregatik, bost elementu horietako batzuk kendu egin behar ditugu. Ez da erraza lan hori bakarka egitea, eta, beraz, taldeka jarriko gara eta hiru gauza garrantzitsuenak aukeratuko ditugu.

3. Talde bakoitzak baditu hiru altxor garrantzitsuenak. Orain, guztion artean hitz egingo dugu, zein ondoriotara iritsi zareten jakiteko.


Zenbait galdera:

1. Asko kosta zaizue aukeratzea?
2. Nola hartu duzue erabakia: botazioz, pertsona batek erabaki du...?
3. Denok neurri berean hartu duzue parte taldearentzat garrantzitsuenak diren hiru gauzak aukeratzeko?
4. Nola sentitu zarete aukera egitean? Zuen iritzia kontuan hartu dela uste duzue?

2.1. Fitxa

Ipuina amaitutakoan egiteko zenbait galdera:


- Gustatu zaizu ipuina?
- Zuri burura etorriko ez zaizkizun zein gauza esan dituzte?
- Gauzak jende gehiagoren artean egiten badira sormen handiagoa dutela eta originalagoak direla uste duzu?
- Zertan pentsatu eta sormenez jardun behar genukeela uste duzu?



Etika / Erlijioa



MUNDUKO
HIRITARROK



ALBOAN

Helburuak

- Parte-hartze sozial arduratsurako bideak ezagutzea.
- Parte-hartzeari buruz hausnarketa egitea: erak, esparruak, uneak.
- Parte hartzeko norberaren ardura onartzea.
- Gure ekintzek duten garrantziaz eta ondorioez ohartu eta horiez jabetzea.
- Irudimena eta sormena garatzea.
- Taldekako lanean jarrera laguntzailea izatea.

Jarduerak

1 ariketa: “Expo-partaidetza” – Maila guztiak

Deskribapena: Orain dela egun batzuetatik, posterrak daude ikastetxeko horma batzuetan. Gela bost taldetan banatuko da eta talde bakoitzari bi poster arretaz behatzeko eskatuko zaio, irudiak aztertu eta zer adierazten duten interpretatzeko. Taldeko kideek interpretazioak adostutakotan, bisita gidatua antolatuko da posterrak ikusteko. Taldeka bina poster aztertu ondoren atera dituzten ondorioak ikaskideei azalduko dizkiete. Haiek parte har dezakete ideiak emanez edo iruzkinak eginez.

Materiala: Posterrak.

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora: 60 minutuko saioa.

Iradokizunak: Ibilbidea amaitutakoan, ikasleek bizitzako hainbat arlotan parte hartzeak duen garrantziaz hausnar dezakete: familia, ikastetxea, auzoa, herria... baita gure ekintzek eta jokabideek izan ditzaketen ondorioez ere. Horretarako, elkarrizketan jardun daitezke zein poster gustatu zaien gehien eta zergatik jakiteko.



2 ariketa:

“Ipin diezaiegun ahotsa irudiei” – 3. zikloa

Deskribapena: Ikasleei ikastetxeko posterrei arretaz begiratzeko eskatuko zaie. Taldeka, ideia nagusiei buruz hitz egin eta zer sekuentzia logiko emango lieketen esango dute, hau da, posterrak ordenatzeko eskatuko zaie. Ondoren, talde bakoitzak irudientzako gidoi bat idatziko du. Sor dezagun istorio ilustratu bat!

Materiala: Posterrak.

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora: 60 minutuko saioa.

Iradokizunak: Ariketa hau hizkuntza-arloan ere egin daiteke. Gainera, idatzizko istorioa zentroen arteko hezkuntza-proposamenean aurkez daiteke. Horren bidez, ALBOANek egunkari bat sortu nahi du.

3 ariketa:

“Hitza hartu” – Ziklo guztiak

Deskribapena: Taldeka, gure familian, ikasgelan, herrian, ingurumenean eta abar parte hartzeko zein bide ditugun aztertuko dute ikasleek. Garrantzitsua da esan behar duguna? Nola egin dezakegu? Ikaskide guztien artean bateratze-lana egin ondoren, ALBOANek emandako poster zuria osatuko dute.

Materiala: Posterra, margoak, errotuladoreak.

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora: 60 minutuko saioa.

Iradokizunak: Ariketa hau erlijioan egiten bada, poster zuria bete aurretik, 3.1. fitxan datozen galderei buruz hitz egin daiteke:



3.1. Fitxa

- *Jesusen mezuak gure mundua leku hobea bihurtzeko parte hartzera bultzatzen gaituela uste duzue?*
- *Nolakoa zen Jesus: gauzak bere horretan uzten zituen pertsona edo aldaketa positiboak lortzeko parte hartzen zuena?*
- *Zer erakusten digu Jesusek bere bizitzeko moduarekin?*
- *Nola uste duzue jokatuko zuela Jesusek gaur egun*
 - *kolore, kultura edo sexuarengatik diskriminatutako pertsona baten aurrean?*
 - *jateko lan egin behar duten haurren egoeraren aurrean?*
 - *ikusteko, entzuteko, ibiltzeko eta abarretarako arazoak dituzten pertsonak beste era batean tratatzen dituztela ikustean?*
 - *natura hondatzen duten egoeren aurrean?*
- *Aurreko egoera horietako bat irudikatzen duen marrazki bat egin dezakezue.*